

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2254

AGINDUA, 2021eko martxoaren 31koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Colegio Vizcaya Fundazioaren estatuetan egindako aldaketa.

2020ko urriaren 27an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Colegio Vizcaya Fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Aldaketa hori fundazioaren egoitza soziala aldatzeko egin zen. Fundazioaren patronatuak 2020ko uztailaren 15ean erabaki zuen aldaketa, eta eskritura publiko bihurtu zen Ignacio Alonso Salazar Bilboko notario jaunaren aurrean 2020ko uztailaren 17an (protokolo-zenbakia: 1411). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Aipatutako dokumentazioan, fundazioaren estatutuen 2. artikularen aldaketa publiko egiten da. Artikulu hori fundazioaren egoitza sozialari buruzkoa da, zeina aurrerantzean honako hau izango baita: Galbarriatu auzoa, 6. zenbakia, Zamudio (Bizkaia).

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin. Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Getxoko (Bizkaia) Fundación Colegio Vizcaya Fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bere egoitza soziala aldatzeko, agindu honen datarekin, Ignacio Alonso Salazar Bilboko notario jaunaren aurrean 2020ko uztailaren 17an egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 1411).

Aurrerantzean, Fundazioaren egoitza soziala izango da: Galbarriatu auzoa, 6. zenbakia, Zamudio (Bizkaia).

Bigarrena.- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

2021eko apirilaren 20a, asteartea

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 31.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.